

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

HEZKUNTZA
ETA KIROL
FAKULTATEA
FACULTAD
DE EDUCACIÓN
Y DEPORTE

NESKA KIROLARIEN EGOERA ESKOLA GARAITIK GOI MAILAKO TXAPELKETERAINO GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Eguren Zubeldia, Peru

ZUZENDARIA: Vizcarra Morales, Maria Teresa.



2017

LABURPENA:

Nesken eskubideak aldarrikatuz, mugimendu feministek bide latza ibili dute. Urte askotan zehar, eta gaur egun ere, gizarteak barneratuta duen matxismoaren aurka borrokatu da, gehiengoaren ideal eta estereotipoen aurka jokatu. Gizartean nesken diskriminazio egoerak gutxitu direla eta sexuen eskubide eta aukerak berdintzen doazela dioten arren, egundoko ibilbidea geratzen da. Beraz, elkarrizketa batzuen bidez, gaur egun goi mailako kirolarien artean neskek bizitzen dituzten diskriminazio egoerak aztertuko ditugu. Beren kiroleko lehen urteetatik gogoratzen dutena egungoarekin alderatuko da, azkenik diskriminazio egoera ezberdinetatik ateratzeko aukera posibleak identifikatu. Hurrengo lerroetan zehar sexu eta genero kontzeptuak azalduko dira, estereotipoek sexu diskriminazioan eduki ditzakeen ondorioak aipatuz. Ondoren, neskek hezkuntzan bizi izandako eskubide eta aukera gora-beherak gaintik aipatuko dira, garrantzi handia eduki zuten zenbait lege eta hezkuntza erreforma argituz. Azkenik, neskek kirol munduan edukitako garapenari errebaso labur bat emango zaio.

Elkarrizketak eta hauetatik lorturiko emaitzak aztertu ondoren, argi ikus daiteke neska kirolariek, beren egunerokoan, diskriminazio egoera ezberdin ugari bizi dituztela. Hala ere, egoera honen analisi hobe bat egiteko denbora gehiago, elkarrizketatuen kopuru handiagoa eta hauek praktikatzan duten kirol aniztasun zabalagoa beharko genuke.

Hitz-gakoak: kirola, sexu estereotipoak, diskriminazioa, aukera-berdinketa.

AURKIBIDEA

1. SARRERA	5
2. MARKO TEORIKOA	5
2.1. Sexua eta generoa	5
2.2. Estereotipoak	7
2.3. Nesken Hezkuntzaren historia	7
2.4. Neskak kirol munduan	10
3. HELBURUAK	13
4. METODOA	13
4.1. Lanaren antolaketa	13
4.2. Partaideak	14
4.2.1. Diseinua	15
4.2.2. Informazioaren bilaketa eta trataera15
5. EMAITZAK	16
5.1. Lehen urteak	16
5.1.1. Estereotipoak17
5.1.2. Aldaketak estereotipoetan17
5.1.3. Izan dituzten aukerak	18
5.1.4. Kirolean, banatuak ala elkartuak? 18
5.1.5. Jasotako tratu ezberdinak	19
5.2. Egoera orokorra	19
5.2.1. Kirolen fama	21
5.2.2. Kirolen famaren eragina	21
5.2.3. Txapelketak	22
5.2.4. Kontratu motak	22
5.2.5. Soldatak	23
5.2.6. Diru laguntzak 23
5.2.7. Klubak	24
5.3. Zergatik gaude egoera honetan?	25
5.3.1. Prentsa eta dirua	26
5.3.2. Prentsaren eragina eta ardura	26
5.3.3. Kiroleko matxismoa 27
5.3.4. Berdinketa ezinezkoa	27
6. ONDORIOAK	28
7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK	29
8. BIBLIOGRAFIA	30

1. SARRERA

Gizarteak, sexuarekiko diskriminazioaren aurka borrokatzeko zenbait lege garatu eta ezarri ditu. Hala ere, badirudi estereotipoak eta diskriminazioak ez direla gainditu, egunerokoan horien errepresentazio ezberdin ugari ikuskatuz. Gizartean gizona emakumeen gainetik kokatzen da, mundua bere inguruan eraikiz, eta ondorioz sexu ezberdinen artean aukera, balorazio, tratu... mailaketa bat egiten da, emakumeak gizonen azpian egonda. Gainera, zenbait diskriminazio mota ez dira batere errazak behatzeko, eta hauek izan daitezke galbidetsuenak. Begiesteko zailenak diren bazterkeriek gizartearen kontzientziazte lan handiagoa behar dute, hauek txikitatik sakondu eta nahi gabe gauzatzen direlako.

Kirol munduan sartzen bagara gutxiespen hau are gehiago ikus daiteke. Hemen gizonen egoera fisikoan oinarritutako kirolak sortu eta hobetzen joan dira. entrenamendu eta jarduerak ere hauen gaitasun fisikoetara egokituz. Beraz, emakumeak ez zuen toki gehiegirik aurkitzen mundu honetan, hasieratik gizartea kontrari baitzuen. Kirola mutilen mundua zen eta emakumeek ez zeukaten lekurik. Baina atek zeozer zabaldu zirenean ez zen mutilen egoera berean izan, sekulako desabantailak edukiz, eta asko saiatu arren gizonen mailara iristea ia ezinezkoa suertatzen zitzairen. Nola ez, eginikoa beste sexuaren ezaugarri fisiologikoei bideratuta egonda, emakumezkoek duten desabantaila latza da.

2. MARKO TEORIKOA

Sexuaren ondorioz kirol munduan dauden desoreka eta diskriminazio egoerak aztertzeko zenbait kontzeptu aztertuko dira. Hasteko, sexua eta generoa kontzeptuak argituko ditugu (Juaristi, 2016), batzuetan berdintzat kontsideratzen dira eta. Horretarako, interesgarria da nesken historia kirol eta hezkuntza munduan lantzea, non lehenik nesken kirol heziketaren eboluzioari so egingo diogun; ondoren neskak kirol profesionalean eduki duten bilakaera aztertuz, prentsa munduan, Joko Olinpikoetan (JJOO), ... izan duten bilakaera erreparatuz. Honako hau aurrera eraman eta ahalik eta zehatzena izateko hainbat autoreen ikuspuntuak kontuan hartu eta erabili egingo dira.

2.1 SEXUA ETA GENEROA

Beharrezkoa iruditzen zait sexu eta genero kontzeptuak argitzea eta beraien arteko ezberdintasunak aipatzea, gizartearen ikuspuntutik nesken eta mutilen arteko diskriminazio edota desoreka egoera asko sexu ezberdintasunaren ondorio kontsideratzen baitira (Scraton, 1992). Beraz, pertsonen sexua biologia arloko kontzeptu bat da non gizon eta

emakumeen desberdintasun anatomiko, kromosomiko eta hormonalen ondorio diren. Generoa, berriz, gizarteratzean eraikitzen da, femeninoa eta maskulinoa kontsideratzen denari erreferentzia eginez, eta hortaz, leku eta momentuaren arabera kontzeptu aldaketaz eraginda. Beraz, esan dezakegu, sexua “den” bitartean generoa “eraiki” egiten dela, eta ondorioz beraien artean ezberdintzen diren kontzeptuak direla. Hala ere, kontzeptu horien arteko ezberdintasunek ez dute esan nahi generoak sexuaren diferentzia biologikoak deuseztatzen dituenik, baizik eta, femenino eta maskulino kontzeptuen interpretazioa egiteko garrantzi gutxi duela (Pérez-Quintana, 2014).

Beraz, biologiaren ikuspuntutik, sexua gameto arren (espermatozoideak), emeen (obuluak) edo bi hauen (organismo hermafroditak) eramaileak ezberdintzen dituen organismo baten ezaugarri biologikoen multzoari deritza (Herrero eta Pérez, 2007). Gaur egun, gizakion ezaugarri sexualen honako sailkapen hau edukiko genuke: *primarioa edo genetikoa* (gorputz osoko zeluletan aurki ditzakegun gen eta kromosometan dago), *sekundarioa* (emeetan obulutegi, obulu eta hormona emeak edukitzea; eta gizonetan, barrabilak, espermatozoideak eta hormona arrak edukitzea), *terziarioa* (arren eta emeen ernal-traktoen arteko desberdintasunak, arretan semen-besikula, prostata, kanpo ernal-organoak, ...; eta emeetan berriz, Falopioren tronpak, umetokia, alua, ...), *kuaternarioak* (ezaugarri somatikoak: bularren hazkundea, ile eta grasen banaketa, hezurduraren forma, ahotsa...) eta azkenik *psikikoak* (libidoa, bikote sena, ama sena...). Honela, gizartearen gehiengo gizon edo emakume kategorian sartzeko aukera genuke, nahiz eta oraindik badagoen jendea ez dela kategorizazio hauetan sartzen eta DSD (Garapen Sexualaren Nahastea) deritzon kategorian egongo litzatekeela eta “hermafroditismo”, “pseudohermafroditismo”, “tercer sexo”, ... bezalako terminoak deuseztatzeke eratu (Herrero eta Pérez, 2007).

Generoari dagokionez, sistema edo talde baten barruan gizoni eta emakumeei atxikitzen zaizkien jokaera-arauen multzo bezala defini genezake (Herrero eta Pérez, 2007). Beraz, generoa emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun sozial eta kultural guztiak dira, fisiologikoak izan ezik. Gizartean emakume eta gizonen izaerei ezartzen zaizkien portaera edo paperak dira; hortaz, “generoa gizarteak sortua da” (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009).

Beraz, ondoriozta daiteke “genero” terminoa ez dela iraunkorra eta kulturaren arabera, historiako momentu ezberdinetan eta norberaren bizitzan zehar aldatzen doala (Scruton, 1992).

Pérez-Quintanak (2014) dion bezala, sozializazioaren bitartez pertsonak genero estereotipoekin duten atxikimendua elikatzen da, norberaren jaiotzatik sexuaren arabera

balorazio sozial bat jasotzen dugu. Honela, androzentrismoa indarrean dagoen kultura askotan gizonetik balorazio hobe bat egotea eragiten du, emakumeen gain desabantaila sozialeko egoerak eraginez (Pérez-Quintana, 2014). Beraz, genero identitateak gure pentsatzeko moduan eta jokaeretan eragiten du, imitazio prozesuez barneratua eta arauak, rolerak eta estereotipo sozialei moldatua. Bere eraikuntzan zenbait elementu eraginez, besteak beste, familiak, eskolak, komunikazio sailek, kideak, ... (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009).

2.2 ESTEREOTIPOAK

Estereotipoak pertsona talde bati ezartzen zaizkion gizarte eraikuntza baztertzailerak dira. Normala eta naturala dela esaten den arren, gizarteak eraikitako ideiak dira (Lopez, 2005). Estereotipo sexistek, arrazistek bezala, emakumeak dauden mendekotasun eta desparekotasun egoerak legitimotzat hartzearen, finkatzearen eta bidezkoitzearen paper soziala betetzen dute. Estereotipoak zabaltzerako orduan kirola erreminta erabakigarria bihurtu zen, gizonengan jarrera suharra sustatuz eta emakumeengan aisialdi berri hauetatik aldentzeko bizi filosofia sortuz. Honela, emakumeentzat arlo artistiko eta adierazkorrek egokienak zirenen ustea hedatu zen. Beraz, estereotipoen bidez bereizketa egoerak mantentzen dira (Martínez, Beltrán de Heredia, Arana eta Longarte, 2015; Lopez, 2005).

Informazio sareetan ere estereotipoen errefortzu bat aurki dezakegu, bereziki kirol sailean, non emakumeen egoerari kalte egiten zaion. Gizonen kirolari balio handiagoa ematen zaie, neskek soldata baxuagoak dauzkate, babesle gutxiago daude, ez zaie aukera bera eskaintzen postu teknikoak lortzerako orduan (entrenatzaileena bezala)... Esan daiteke, emakumei sexuaren arabera genero rolerak ezartzen zaizkiela (Martínez, et al., 2015).

2.3 NESKEN HEZKUNTZAREN HISTORIA

Sexuaren arabera diskriminazio egoera ugari aurki daitezke historian zehar, eta hurrengo lerroetan Espainiako hezkuntzak eduki duen eboluzioa (gaintik) aipatuko da. Horretarako, hezkuntzan neskek eduki dituzten eskubide, askatasun, mugak, trabak ... aztertuko ditugu. Baina prozesu hauek aztertzen hasi aurretik zenbait ideia eta kontzeptu azaltzea eta argitzea ezinbestekoa iruditzen zait. Esaterako, Subiratsek (2014) dion bezala, hezkuntza sistemak gizonentzat pentsaturiko eta mutilengana bideraturiko sorrera eduki zuen, ondorioz etorkizunean edukitako zabaltze eta eraldaketak mutilen eskolatzeko eta modeloetan oinarrituz. Beraz, hezkuntzaren ezaugarri kulturalak, haur hezkuntzatik unibertsitatera, ez dira ia aldatu, urte guzti hauetan zehar kultura androzentrikoaren oinarriak zabalduz. Lehendakik, 1857ko Moyano Legeak bai nesken eta baita mutilen eskolak eraikitzea

behartu zuen. Nahiz eta azken hau bereziki maila baxuko familien desberdintasun moralak moldatzeko eginga izan (Ballarin, 2007).

XX. mendeko lehen hiru hamarkadetan gizarteak emakumeen hezkuntzarekiko zuen kezka areagotzea gertatu zen. 1901eko Urriak 26eko Dekretuak neska eta mutilen hezkuntza programak bateratu zituen. 1909ko Ekainak 23ko Legeak derrigorrezko hezkuntza urteak 12ra igo zituen. Politika aldetik hogeita hamargarren hamarkada bereziki adierazgarria izanik, garai hartan bizi izandako demokrazia eta kontserbadoreen epeak bateratuz, gerra zibilarekin bukatu eta frankismoari hasiera eman arte (González, 2008; Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009).

Neskei inposatzen zaizkien paper sozialak alde batera utzi gabe eta genero berdintasunak eztabaidatzen ez ziren arren, II. errepublika aurrerapen handia izan zen emakumeak hezkuntza munduan sartzerako orduan. Hezkuntza nesken autonomiaren gakoa izan zitekeela pentsatu arren, emakumeen ezjakintasuna justifikaziotzat hartu zen berriro ere emakumea gutxiesteko. Gerra zibila hastean, emakumeak gizartea mantentzeko eta irauteko lana eduki zuten, herritar bezala eduki beharko zituzten eskubideak lortzeko borroka alde batera utziz, eta ondorioz hezkuntza eskubidea galduz (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009).

Honela, emakumeek Espainia berriztatzeko erantzukizuna jaso zuten, Gerra Zibilak utzitako hildakoen egoera soziala berreskuratu eta eraldatzeko. Beraz, eta emakumeek funtzio sozial hau modu “egokian” (edo gobernu frankistak ezarri zion rola betetzeko) bete dezaten garrantzi handia eman zitzaion amatasun, garbitasun eta umeen zainketari (Rabazas eta Ramos, 2006)

Frankismoaren hasierarekin, emakumeen menderatzea gerturatu zen, beraien eskubide eta espazio pribatuak murriztuz eta orokorrean etxeetako erreinura bultzatuz. Honela, 1936ko Irailak 23ko dekretuaren bidez hezkidetzak baztertu egin zuten, eskola bereiztuari hasiera emanez (Vizcarra, Macazaga eta Rekalde, 2009). Honen helburua neskek etxeko andere, emazte fidel, arlo sozial eta politikoak senarrari uzten dizkietenak, ... izatea da. (González, 2008).

Frankismoaren bukaera iritsi arte, kirol munduan, emakumeek zuten egoerak ez zuen aurrerapen handirik eduki (Caspistegui, 2004). Honela, 1940tik aurrera, eta nesken kirol aktibitateari dagokionez, atzera pausu handi bat ikus dezakegu kristautasunaren ikuspuntuaren indar areagotzea dela eta. Nesken Batxilergoko Institutuetan nesken egoerari buelta ematen asko lagunduko ez duten hiru arlo berri ezarriko dituzte: “Hogar” edo etxea bat, Formakuntza politikoa bigarrena eta azkenik Gorputz Hezkuntza. Gainera, arlo berri

hauen andereñoek, beste arloetako eta beste sexuko irakasleak baino diru gutxiago irabazten zuten, 80ko hamarkadan egoera hau parekatzen hasi arte (Zagalaz, 2001).

1970arte zenbait lege atera arren (1945eko Lehen Hezkuntzako Legea eta 1953ko Bigarren Hezkuntzako Koordinazio Legea) ez zen nesken hezkuntza eskubideetan aldaketa handiegirik egon. Urte horretan eskola mistoaren legalizazioa iritsi zen. 1970eko Hezkuntza Orokorreko Legeak emakumeen eskolaratzeaz aipamenik egiten ez duen arren, nesken hezkuntzarekiko berdintasun printzipioak eta ez bazterzea definitzen ditu, Derrigorrezko Hezkuntza 6 urtetik 14 urteetara ezarriz. Horrela neskek eta mutilak eskola berdinetan egoteko lehen pausuak ematen dira, bi sexuentzako egokituriko curriculumak eratuz eta eskola publikoen bateratzearekin hasiz, nahiz eta zenbait arlo banatuak egin, esaterako Gorputz Heziketa. Eskola mistoak sortzean, nesken hezkuntzarako beharrezko bezala ikuskatzen ziren “Enseñanza del Hogar” bezalako arloak, baztertu zituzten. Segregazio sistematik mutilen curriculumak ezartzera pasa zen, bi sexuen formakuntza lortzeko beharrezkoak diren elementuak kontuan eduki barik. Kopuruetara joanez, datu bezala, 1976ean batxilergoan matrikulatuta zeuden ikasleen artean, lehenengo aldiz, nesken kopuruak mutilena gainditu zuen (González, 2008; Subirats, 2014).

1979-80. urteetan zehar nesken hezkuntzaren egoeraren inguruan gizartearen hausnarketa bat hasi zen. Beraz, Subiratsek (2014) dionez, gizarteak egoera hori kritikatzeko hasteko arrazoen artean hezkuntzaren izaera androzentrikoa zegoen. Oraindik neskek Hezkuntza Sistemak zeukaten garrantzia eskasa zen, gizartean barneratuta baitzegoen neskek “bigarren mailako” gizakiak zirela. Honela hezkuntza sistema aldatzeko nahia agertu zen, eskola mistoaren gainjartze bezala “Hezkidetza” terminoa ezarriz. Hortaz, Emakumearen Institutuaren sorkuntzak eta garai honetan Hezkuntza Ministerioarekin, Komunitate Autonomoetako Berdintasun Alorrekin, Irakasle Eskolekin ... ezarritako talde lanak hezkuntza mistoa kritikatzeko eta hezkidetza bultzatzeko politiken sorkuntzari lagundu zioten.

1990ean, PSOE gobernuan zegoela, LOGSE legea atera zuten, denek hezkuntza aukera berdinketa bilatuz. Lege honen bidez, besteak beste hezkuntza sistemak urte eta mailak aldatzeaz gain (Derrigorrezko Eskolatzea urteak 8tik 10era aldatu, Lehen Hezkuntzaren bukaera 14 urtetatik 12 urteetara murriztu zen, baina Derrigorrezko Hezkuntza 16 urterarte luzatuz...), gobernuak sexuaren arabeko hezkuntza diskriminazioa onartu zuen. Sexu bazterkeriaren onartzea lehenengo aldiz bere legegizazioan sartu zen, curriculumean diskriminazioaren aurkako printzipioak aldarrikatuz eta sexuen berdintasuna ezarriz. 1996ean PP-k hauteskundeak irabazi arren, ez zuten 2000arte gehiago absoluturik izan. Behin botere guztia zutelarik, eta 2002 urtean, LOCE legea proposatu

zuten, aurrekoaren guztiz ezberdina zena. Hau azkenean EH-an ezarri ez zen arren (Espainian bai), ondorio garrantzitsuak izan zituen hurrengo legean, PSOE-k 2004ean ateratako LOE-n (Felgueroso, Gutiérrez-Domènech eta Jiménez-Martín, 2013; González, 2008; Subirats, 2014).

Honela, hurrengo urteetan zehar berdintasuna eta koedukazioa bultzatzen duten zenbait aldaketa egongo dira, esaterako hezkuntza arloan genero biolentziaren aurkako Legea, berdintasunaren printzipioa irakasleen formakuntzan sartzea, generoa hezkuntzan lantzea, ... bezala, Gobernuko Hezkuntza Ministerioak, 2011ean, LOMCE proiektua bultzatu arte (Subirats, 2014).

2.4. NESKAK KIROL MUNDUAN

Berdintasun terminoak aztertzeke orduan emakume kirolarien egoera soziala eta izan dituzten zailtasunak ere kontuan eduki behar dira (Leruite, Martos eta Zabala, 2015). Emakume kirolariak esfortzu izugarriak egin zituzten (eta egiten ari dira oraindik ere) beraien jardueri beharrezko garrantzia emateko, eta kirol mundu desorekatua orekatzeko. Hala ere, 1896an ez zuten JJOO-etan parte hartzea lortu, lau urte ondoren, 1900ean, aurrera pausu bat emanez eta emakumeen parte hartzea 3 frogetan bakarrik onartuz, zehazki tenisean, croquet-ean eta golf-ean bakarrik gertatu zen (mutilek 85 froga zeuzkaten) (Torrebadella-Flix, 2016).

Espainiako neskek, hogeigarren urteko hamarkadan, kirol munduan zuten papera oso eskasa zen, indarrrik gabea, eta goi mailako neska batzuentzat bakarrik onartua. 1918an nesken kiroleko lehen txapelketa sortu zuten, zenbait ikasleren mugimendu eta esfortzuarri esker, lehen pausu ofizialak hockey-ean emanez. Bestalde, 1928ko JJOO-etan hurrengo urrats garrantzitsu bat eduki genuen neskek kirol munduan zuten paper internazionallean. Aurretik aipaturiko kirolez gain, neskek gimnasia eta atletismoan ere onartuz (Torrebadella-Flix, 2016). 1984ko JJOO-etatik aurrera Espainiako errepresentazio femeninoa izugarri hazi zen. Baina Bartzelona 1992-ko JJOO-ak izan ziren Espainiako neska kirolarien kontsolidazio urtea (141 emakumek parte hartu zuten, Espainiako kirolari Olinpikoen %29,7-a). Hemen emakumezkoen urrezko lehen dominak lortu zituzten, zehazki Hockeyen, Judon, Belan eta Gimnasia. Egoera hau, urteen eta eten gabeko borrokaren poderioz, areagotzen joan zen, Pekineko JJOO.-etan emakumeen kopurua Espainiako kirolarien %43a izanda. Londreseko jokoetan 135 emakumek parte hartu zuten, lehengo aldiz gizonak baino domina gehiago irabaziz (11 urrezko domin) (Leruite, Martos eta Zabala 2015). Espainiako kirolari femeninoek 1896tik 2008rarte eduki duten partaidetza azaltzen da (ikusi Taula_1).

Taula_1: Emakumeen partaidetza joko olinpikoetan (Tusell, 2009).


EGOITZA	KIROLARI KOPURUA	EMAKUME KOPURUA		EGOITZA	KIROLARI KOPURUA	EMAKUME KOPURUA
Atenas 1896	241	0		Roma 1960	5.338	611 (%11,45)
París 1900	997	22 (%2,21)		Tokio 1964	5.151	678 (%13,16)
San Luís 1904	651	6 (%0,92)		Mexiko 1968	5.516	781 (%14,16)
Londres 1908	2.008	37 (%1,84)		Munich 1972	7.134	1.059 (%14,84)
Estocolmo 1912	2.407	48 (%1,99)		Montreal 1976	6.084	1.260 (%20,71)
Amberes 1920	2.626	65 (2,48%)		Moscú 1980	5.179	1.115 (21,53%)
París 1924	3.089	135 (4,37%)		Los Ángeles 1984	6.289	1.566 (22,93%)
Ámsterdam 1928	2.883	277 (9,61%)		Seúl 1988	8.391	2.194 (26,15%)
Los Ángeles 1932	1.332	126 (9,46%)		Barcelona 1992	9.356	2.704 (28,9%)
Berlín 1936	3.963	331 (8,35%)		Atlanta 1996	10.318	3.512 (34,04%)
Londres 1948	4.104	390 (9,50%)		Sydney 2000	10.651	4.069 (38,20%)
Helsinki 1952	4.955	519 (10,47%)		Atenas 2004	10.568	4.306 (40,75%)
Melbourne 1956	3.314	376 (11,35%)		Pekín 2008	11.196	4.746 (42,39%)

2012. urtean Londresen lehen aldiz delegazio guztiek eraman zuten emakume bat ordezkari bezala, Arabia Saudikoentzat lehenbiziko aldia zen emakume batek parte hartzen zuela. 1975etik aurrera, emakumeak gizartearen zenbait eremu ezberdinetan zabaltzen hasi ziren, lanean esate baterako; eta 13/1980 Legea ateratzeak emakumeek kirolean duten rola eztabaida ireki zuen, kirola egiteko instalazio publikoak, ... eraikiz (Leruite, Martos eta Zabala, 2015).

Gaur egun, eta estereotipo tradizionala baztertuz, Espainiako nesken futbola eskolan, jolasetan eta lehiaketa alorretan aurki daitezke, neskek praktikatzen duten talde

kirol nagusia izanik. Hala ere, oraindik bide luzea falta da mutil eta nesken kirol munduak bateratu eta berdintzeko, kirolaren eraikuntza sozialaren oinarria gizonen historia hegemonikoa baita (Torrebadella-Flix, 2016). Esaterako, sexuaren arabera dauden soldaten desberdintasunak latzak dira, Espainiako neskek batz-batez %16,4-a gutxiago irabaziz (futboleko diferentzia askoz ere handiagoa da, 1.mailako neskek irabazten dutenaren batz-batekoa 1.000 euro izanez eta mutilen soldata minimoa 11.071). Hau lan postuetan, publizitatean, prentsan, hizkera sexistetan, ... ikus daiteke. Gainera, komunikazio kateek ere desberdintasun hauek areagotzen izugarri lagundu dute, ondorengo grafikoa (1.grafikoa) ikuskatzen den bezala nesken kirolen emankizunak murriztuak izanez. Modu honetan, munduko kirol ekitaldi famatu eta handienetan generoaren inguruko estereotipo sozialak indartzen dituzte (Leruite, Martos eta Zabala, 2015).

1.Grafikoa: Espainiako kate handien telebista denbora. (Tusell, 2009)



Beraz, eta gaur egungo egoeraren ikuspuntu zuzenago bat edukitzeko, Espainiako neskek kirol munduan duten presentzia aztertuko dugu, 2015ean Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak egindako inkesta batetik zenbait datu hartuz. Esate baterako, azken urte horretan, emakumeen artean kirola normalean egiten dutenak %47,5a dira, gizonena %59,8a izanik. Gainera, hauetatik kirol bakarria egiten duten emakumeak %26,4a dira, %73,6ak bi kirol praktikatu. Honela, kirol guztien artean gehien lantzen dena txirrindularitza (%38,7) genuke, ondoren igeriketa (%38,5), eta hirugarrenik mendi ibiliak (%31,9). Azkenik, aipatu nahiko nuke, kirola egiten duten nesken artean %36ak gutxienez bere gurasoetako batek praktikatu duen kirola egiten duela, neska guztien %23,2a izanik. Kirolerako

lizentzia duten emakumeen kopurua %5a da gizonena %14,8a izanik (CSD, 2015). Kirol Kontseilu Gorenak (2013) ateratako datuen arabera, Espainian dauden 66 Federazioetan kirol lizentzia dutenen artean 712.027 (%20,9) neskek eta 2.682.608 (%79) mutilak dira (Leruite eta Martos, Zabala, 2015). Argi dago urteak pasa ahala neskek kirol munduan dituzten eskubideak, mutilekiko, hobetzen eta berdintzen ari direla, baina oraindik bide luzea falta zaigula hau lortzeko. Pixkanaka, kirol munduan gizon eta emakumeen parte hartzea parekatzen ari da, nahiz eta hau goi mailako kirolarietan behatu ezker ez doan erritmo berdinean. Gainera, kirola egiten duten nesken artean gehiengoak bi edo gehiago praktikatzeko dituzte, neska hauetatik askok gurasoen kirol berdina aukeratuz.

3. HELBURUAK

Azken hamarkadetan egondako mugimendu eta borroka feministei esker, gaur egungo egoera zertxobait hobetu dela diote, eta hau zenbateraino egia den aztertzeko ondorengo lan hau egin da. Honela, sei kirolari profesionali bideratuta zegoen elkarrizketa prestatu zen, hauen bizipenen bidez nesken kirolaren egoera aztertu ahal izateko. Beraz, elkarrizketa ezberdinetatik lortutako emaitzekin honako puntu hauek lortzeko helburua dut:

- Goi mailako kirolean nesken egoera soziala aztertu: soldatak, gizartearen balorazioa, diskriminazio egoerak, estereotipoak, ...
- Goi mailako kirolariek eskola garaitik goi mailetara iristeko bizi dituzten diskriminazio egoerak aztertu.
- Sexuaren araberako diskriminazioaren eta trataera ezberdinketaren arrazoi eta konponbide posibleak identifikatu.

4. METODOA

Lana bideratzeko elkarrizketa bat egitea erabaki nuen. Elkarrizketa hau kirol munduko goiko mailetan konpetitzen duten edo konpetitu izan duten sei kirolarirekin egin dut, emaitzak lortzeko hauek esandakoa oinarri hartuz.

4.1. LANAREN ANTOLAKETA

Lanaren gaia aukeratu eta tutorearekin hitz egin ondoren, lehen erabakiak hartzen hasi nintzen, esate baterako marko teorikoan landuko ditudan arlo posibleen aukeraketa. Gogokunde ezberdinen bidez lanari forma ematen joan nintzen, eginikoa irakaslearekin banatuz eta bere zuzenketen bidez beharrezkoak ziren aldaerak eginez. Erabaki hauen laburpena 2.taulan ageri dira.

2.Taula: Lanaren Plangintza.

NOIZ	ZEREGINA
2016/09/16	GAL-ari hasiera eman: Bilaketa itsua eta Gral-erako ideiak, Marko Teorikorako autore batzuk, kronograma.
2016/11/01	Marko Teorikoaren eta Helburuaren lehen erredakzioa bidali.
2016/12/05	Elkarrizketa prestatu eta zuzendu.
2016/12/09	Metodoa eta Landa Lana egin.
2017/01/16	Elkarrizketetan lorturiko informazioarekin emaitzen behaketa eta ondorioztaketa.
2017/02/08	Lanaren atal guztiak batera bidali.
2017/02/10	GrAL-aren entrega

Lana egin ahala tutoreari bidalitako atalak eta egunak aipatzen dira, eta landa-lana aurrera eramateko 3.taulan jasotzen dira hartutako erabakiak.

3.Taula: Landa-lana: Elkarrizketen Plangintza.

DATA	EGITEKOA
2016/11/25	Elkarrizketak aurrera eramateko lehen kontaktuak.
2016/12/01	Elkarrizketak egiteko lehen egunak finkatu.
2016/12/19	Mutila_1-ekin elkarrizketa egin.
2016/12/22	Mutila_2-rekin elkarrizketa egin.
2016/12/22	Neska_1-ekin elkarrizketa egin.
2016/12/27	Neska_2-rekin elkarrizketa egin.
2017/01/04	Neska_3-rekin elkarrizketa egin.
2017/01/09	Neska_4-rekin elkarrizketa.

Kirolariek edukitako lehen kontaktuak eta elkarrizketen datak agertzen dira.

4.2. PARTAIDEAK

Zenbait kirolarien kontaktua lortu eta gero elkarrizketak egiten hasi nintzen. Hasiera batean Real Sociedad C.F.-eko bi futbol jokalarirekin (Neska_2 eta Mutila_1), Oiartzun K.E.-ko futbol jokalaria batekin (Neska_1) eta Magia Huesca-ko saskibaloi jokalaria batekin (Mutila_2) kontaktuan jartzeko aukera eduki nuen. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zitzaidan ohikoak ez diren kiroltako profesional batekin elkarrizketatzea. Honela, Athletic C.B.-eko jokalaria batekin (Neska_3) eta C.G.R. Donosti-ko gimnasia erritmikoko gimnasta batekin (Neska_4) elkarrizketa egiteko egun eta orduak finkatu nituen, hurrengo fasera pasa ahal izateko azken pausuak emanez.

Hortaz, banituen nire elkarrizketak egiteko sei kirolari profesionalen eskaintzak, hauetatik bosten bidez Espainia eta Euskal Herriko bi kirol garrantzitsuenen egoerak aztertzeke aukerak izanez, eta bestalde gimnasia erritmikoa bezalako kirol "minoritario" baten egoera behatuz, agian egoera antzekoan dauden beste kirol batzuen erreflexu izan daitekeena. Elkarrizketatuen batz besteko adina 26 urtetakoa da. Horietatik bostek lehiatzen jarraitzen dute, gehienentzat lehen urteak izanda, baina azken elkarrizketatuak 1994ean utzi zituen goi mailetako txapelketak. Hauek dira nik elkarrizketatu ditudan kirolarien ezaugarri batzuk:

- Mutila_1: 23 urte, Espainiako lehen mailako futbol jokalaria.
- Mutila_2: 23 urte, ACB-n jolastu zuen eta orain LEB Oro-n (saskibaloiko 2.maila) jolasten du.
- Neska_1 : 29 urte, Espainiako lehen mailako futbol jokalaria.
- Neska_2: 21 urte, Espainiako lehen mailako futbol jokalaria.
- Neska_3: 21 urte, Espainiako lehen mailako futbol jokalaria.
- Neska_4: 41 urte, Espainiako gimnasia erritmikoko selekzioan ibilia eta munduko txapelketan zilarrezko domina irabazi zuen.

4.3. Diseinua

Goi mailako kirolariei bideraturiko elkarrizketa prestatu nuen (1.eranskina). Honek zazpi galdera orokor ditu, bakoitzean lau erantzun posible edukita. Erantzunen aukeraketa egin eta gero bakoitzak honako hau argitu behar du, beharrezkoak deritzon argudioak emanez. Beraz, elkarrizketaren barruan galdetegi txiki bat dagoela esan dezakegu.

4.Taula: Elkarrizketa Faseak.

Garaiak	Zer jakin nahi genuen?
Eskolako Lehen Urteak	Eskola Kirolean bizi izandakoa kontatu: entrenatzaileen tratua, epaileena, gurasoak, ...
	Gorputz Hezkuntzako orduetan bizi izandakoa kontatu: irakaslearen partez, ikaskideen partez, ...
	Lehen klubetan bizi izandakoa kontatu: entrenatzaileak, kluba, epaileak...
Goi Mailako Emakume Kirolarien Egoera Orokorra	Mutil eta nesken artean bizi izandako tratu ezberdinak, diskriminazioak...
	Gizartearen balorazioa: gizarteak beren lan eta esfortzuari emandako balioa, interesa, ...
	Estatu eta Federazioaren aldetik emandako baliabideak: sariak, instalakuntzak, ...
	Soldatak: klubean aldetik, marketing aldetik, ...
	Klubean trataera: baliabideak, lesionatzerakoan errekuperatzeko beharrezko tratamendu eta tresnak, bidaiatzeko moduak, ...
Beste kirolekiko egoeraren aldaera: bakoitzaren kiroleko egoera beste batzuekin konparatu.	
Gaur Egungo Egoera eta Hobekuntzak	Gaur egungo egoera neska eta mutilen kiroletan: Ze egoeran gaude?
	Nola iritsi gera egoera honetara?
	Nola atera/konpondu dezakegu egoera hau?

Landu beharreko gaia oso zabala denez, eta elkarrizketaren bidez guk aztertu nahi ditugun arloak ukitzeko eta lantzeko, zazpi galderen gehigarri edo orientabide diren beste galdera batzuk prestatu nituen. Horien bidez elkarrizketaren nondik norakoa bideratzeko aukera edukiko dut. Laugarren taulan elkarrizketaren bidez lantzen ditugun hiru fase aipatuko ditut, bakoitzean bilatzen duguna azalduz:

4.4. Informazio Bilketa eta Trataera

Elkarrizketa prestatzeko desberdinu ditugun hiru garaiak eta elkarrizketatuek hauetan esandako bizipenak oinarri bezala hartuz, hainbat kategoria sortu dira. Horiek 5.taulan jasota daude.

5.Taula: Katgoria sistema

DIMENTSIOAK	KATEGORIAK
1.LEHEN URTEAK	Estereotipoak Estereotipoetan aldaketak Izandako aukerak Kirolean, banatuak ala elkartuak? Jasotako tratu ezberdinak
2.EGOERA OROKORRA	Kirolen fama Kirolen famaren eragina Txapelketak Kontratu motak Soldatak Diru laguntzak Klubak baliabideak bidaiak
3.ZERGATIK GAUDE EGOERA HONETAN?	Prentsa eta dirua Kiroleko matxismoa Prentsaren eragina Prentsaren ardura Berdinketa, posiblea edo ezinezkoa?

5. EMAITZAK

Honakoan, 5.taulan aipaturiko dimentsioak eta kategoriak osatu dira elkarrizketan zehar lorturiko informazioa eta galdetegian jasotako emaitzak erabiliz.

5.1. LEHEN URTEAK

Elkarrizketatuek kiroleko lehen urteetan (eskola kirola, eskolaz kanpoko ekintzak, jolas orduak, irakasleen tratua ...) bizi izandakoa aipatuko da. Atal honetan eginiko galdera eta jasotako erantzunak 6. Taulan ikus daitezke.

Lehen urteei, kirol hezkuntzari, gorputz hezkuntzari... dagokionez, %85ak ez du sexu diskriminazio edo etiketatzerik bizi izan, hau da, ez zieten mutil edo neskek izateagatik kirol espezifiko batean jarduteko indar edo presiorik egin. Bestalde, (%17-ak) bai bizi izan zituela horrelako egoerak, mutilek eta neskek hasieratik zenbait kirol behinen edukiz, eta gizarteak sexu bakoitzari berariazko kirol arloan ezartzeko presioa eginez.

6.Taula: Eskola garaian neska eta mutilen aukerak.

GALDERA	ERANTZUNAK
Eskola garaian neskek eta mutilek zenituzten aukerak berdinak ziren?	A. Txikitatik denak animatzen gintuzten.
	B. Inork oztoporik jartzen ez zigun arren, bai bultzatzen zirela zeozer mutilak futbola eta saskibaloia bezalako kirolak egitera.
	C. Zenbait kirol neskentzat eta beste batzuk mutilentzat izan behar zirela oso markatuta zegoen.
	D. Ez nator bat aurreko aukerekin.

5.1.1. Estereotipoak:

Betidanik sexuaren gisara sortzen diren estereotipoak ugariak izan dira. Kirol munduan horiek lazgarri gaineratzen dira, emakumeak arlo artistikoetan, teknikoetan ... barneratuz; eta mutilak ostera, sail fiskoetan. Hau haurren lehenbiziko urteetatik barneratzen da, eta jardungo dituzten kirolen hautaketan eragiten du. Neska batek oso argi hitz egiten du estereotipoen inguruan berak bizi izandako esperientziari buruz.

“Gure garaian gehien bat, zeren ni 70ekoa naiz, txikitatik oso markatua zegoen. Mutila baloia, futbola eta saskibaloia; eta neskei gehiago bideratzen zitzairen dantzara, gimnasia erritmikora, ...” (Neska_4)

Ondoren, eskola kirolik ez egoteak eta bi sexuen gain zeuden estereotipoek sorturiko egoera pertsonal bat kontatu zuen.

“Gure garaian ez zegoen eskola kirolik, eta hasieratik kirolen bat aukeratu eta han sartzen zinen. Ni adibidez, judo egiten hasi nintzen, baina judon egongo ginen hiru neska eta hogeit hamar mutil... Edo gimnasia erritmikoa, mutil bat ikustea ezinezkoa zen, ezen pasatzen burutik.” (Neska_4)

5.1.2. Aldaketak Estereotipoetan:

Egun, sasoi horietako estereotipoek zenbait aldaketa jasan dituzte. Esaterako, neskek geroz eta ugariagoak dira aldeko sexura onesten zirenekin kirolean. Dena dela, estereotipoak ez dira ezabatu, eta hauen erakusgaiak eremu ugarietan aurki ditzakegu. Nesketako batek garai haietatik gaur egunera aldaketak egon direla uste du:

“gaur egun, oraindik ere estereotipoak garatzen dira apur bat. Baina pixkanaka, eskola kirolarekin, txikitatik dena probatzen hasten gara, neska izan edo mutila izan, eta ez da hainbeste markatzen ... eskerrak, iada bagoazela ikusten aldaketak pixkanaka, eta ez da hain arraroa mutil bat dantzan sartzea.” (Neska_4)

“Gu, jolas orduan klase osoa bildu eta ‘Capote’ bat (saskibaloiko jolas bat) jolasten genuen denok batera, neskak eta mutilak... Egia da beste klaseetan ez zela hau bizitzen, baina nik hau bizi nuen.” (Mutila_2)

Eskola kirolean zentroak dira taldeak mistoak edo banatuak egitea erabakitzen dutenak. Aukeratzen dena arrazoi ezberdinen ondorioa da, eskola kirolean izena ematen duten haur kopurua, kirol koordinatzaileen iritzia (pribatuetan), guraso elkartearen iritzia (publikoetan). Aurreko mutilaren bizipenen kasuan:

“... gero, futbola eta saskibaloia bezalako kirolean (eskola kirolaz hitz egiten ari da) ekipoak ez ziren mistoak, neskek ekipo bat edo bi eta mutilek beste ekipo bat edo bi ateratzen zituzten... Baina bai neskek eta baita mutilak ere ia denak apuntatzen ginen.” (Mutila_2)

5.1.5. Jasotako tratu ezberdinak:

Bizitzako egoera askotan bezala, kirolean neskek eta mutilek tratu ezberdinak jaso izan dituzte, sexuaren arabera aukera ezberdinak edukiz. Azken elkarrizketatuak argi eta garbi azaltzen du gimnasia erritmikoan sexuaren arabera desberdin tratatuak izaten zirela.

“gure garaian, nesketan oso gazte joaten ginen Madrilerara. Espainako selekzioan egoteko Madrilen bizi behar zinen, eta bertan geunden kontzentrazio permanente batean. Eta nesken artean gazteagoak ginen mutilak baino (gimnasia artistikoko mutilak, ez erritmikokoak) eta egoera ezberdina zen. Egunean zortzi ordu entrenatzen bagenituen, ba eskolara joateko aukerarik ez geneukan. Nik adibidez Batxilergoa amaituta neukan, bueno orduan BUP zan, baina beste batzuek DBH egiten eta ez zuten ikasten. Mutilen arloan ez zirenez hainbeste ordu, ikasteko aukera zuten” (Neska_4)

Gainera, kontzentrazio lekuak eta modua ezberdina zen bi sexuen artean.

“gu bizi ginen etxe batean entrenatzailearekin eta mutilak bizi ziren hostal batean. Gu kontzentratuago edo kontrolatuago edukitzeko mutilak baino...” (Neska_4).

5.2. EGOERA OROKORRA

Sexuaren arabera goi mailako kirolean bizi den egoera aztertuko da, horretarako klubak, federazioak, gizartea... kirol batzuetan duten eragina aztertuz. Atal honetan bost galdera agin nituen, horien erantzunak ondorengo grafikoetan azalarazten dira:

7.Taula: gizartearen balorazioa.

GALDERA	ERANTZUNAK
Gizarteak nola baloratzen du sexuaren arabera goi mailako kirolen egoera?	A. Berdin baloratuak daude.
	B. Desoreka handia dago, mutilak baloratuagoak izanez.
	C. Desoreka oso txikia da, mutilak baloratuagoak egonez.
	D. Ez nator bat aurreko aukerekin.

7.taulan, elkarrizketatuen gehiengoak, zehazki %83ak, B aukera zuen beraien ideiekiko gertukoena. %17-ak berriz, D erantzuna aukeratu zuten. Beraz, argi dago gehiengoan ustez, edo gehiengoak praktikatzen duten kirolean, desoreka handia dagoela nesken eta mutilen egoeraren artean, mutilena nahiko hobea izanez. Hala ere, gutxiengo batek bizi izan dunaren arabera desberdintasun hau ez da hain argia, eta egoera parekatuagoa dago.

8.Taula: Estatuaren eta Federazioen balorazioa sexu bakoitzari.

GALDERA	ERANTZUNAK
Estatuaren, federazioaren, ... aldetik nesken eta mutilen kirola berdin baloratuta dago? Baliabide berdinak ematen zaizkie?	A. Bai, bi sexuek berdina jasotzen dute.
	B. Ez, mutilak gehiago baloratuak daude eta ondorioz baliabide gehiago jasotzen dituzte.
	C. Ez, mutilak zertxobait gehiago baloratzen dira eta baliabide piska bat gehiago jasotzen dituzte.
	D. Ez nator bat aurreko aukerekin.

Elkarrizketatuen iritzia globala da, denak ados daude gobernu eta federazioaren aldetik mutilekiko eta neskekiko duten tratua, lanaren balorazioa, ... desorekatua dela, mutilen esku baliabide gehiago jarriz. Gainera hau ez da futbol eta saskibaloian soilik ikusten, gimnasia erritmikoari eta gimnasia artistikoari dagokionez ere, aurreiritzi eta etiketek nesken kirol bezala ezartzen dituzten arren, federazio eta gobernuen partez mutilen eremuan errekurtso handiagoak jartzen ari dira.

9.Taula: Soldatak.

GALDERA	ERANTZUNAK
Sexuaren arabera, soldatak antzekoak dira?	A. Orokorrean bai.
	B. Ez, mutilek pixka bat gehiago irabazten dute.
	C. Ez, mutilek askoz ere gehiago irabazten dute.
	D. Ez, neskek gehiago irabazten dute.

Mintzakideen gehiengoek (%83ak) desoreka handia ikusten dute berain kirolean ezarritako soldatei dagokionez. Oso argi dago, futbola eta saskibaloia bezalako kirolean (berezi kirolean) mutilek izugarriko soldatak jasotzen dituztela eta neskek, berriz, azken urte hauetan lortu dutela soldata dei daitekeen diru sarrerak jasotzen hastea. Hala ere, gimnasia

erritmiko eta artistikoari dagokionez ere, mutilen soldatak pixka bat altuagoak direla aipatu behar da.

10.Taula: Kluben baliabideak.

GALDERA	ERANTZUNAK
Zure klubean eskura dituzuen baliabideak eta beste sexuarenak berdinarak dira? (bidaiatzeko moduak, medikuak, instalakuntz...)	A. Orokorrean bai.
	B. Ez, mutilek askoz ere baliabide gehiago dauzkate.
	C. Ez, neskek baliabide gehiago dauzkate.
	D. Ez nator bat aurreko aukerekin.

Atal hau bukatzeko, aipatu beharko genuke, klubean lanari dagokionez emaitzak nahiko onak direla. Orokorrean (%83) klub gehienetan neskekiko eta mutilekiko duten tratua berdina da, beraien esku baliabide berdinarak edukiz. Gimnasia erritmikoko klubean berriz, eta beste elkarrizketatuekin duen adin diferentzia kontuan edukiz, mutil gutxi zeuzkaten eta orokorrean neskek baliabide gehiago zeuzkaten eskura.

5.2.1. Kirolen fama:

Kirol bakoitzak bere jarraitzaileak eta ondorioz bere fama dauka, eta berdina gertatzen da horien barnean sexuaren arabera sailek duten ospearekin. Gizarteak orokorrean mutilen-kirol bezala ezar ditzakeen kiroletan eta beste sexuarekin alderatuz, nesken lana ez da hain ezaguna edo famatua, pausuz pausu egoera zeozter hobetzen doan arren. Honen inguruan, futboleko sexu ezberdinek bizi duten egoera nolakoa den oso argi aipatzen du elkarrizketatuetako batek:

“Nesken futbola, orain aste bukaeratan ETB-n botatzen duten arren, mutilen futbolaren fama oso gaineratik dago eta gizarteak gehiago ezagutzen du.” (Neska_3)

5.2.2. Kirolen famaren eragina:

Kirolek duten ospeak eragin izugarriak izan ditzake, gehienetan jarraitzaileen kopurua igoz. Hala ere, gaur egun gizarteak dauzkan informazio-iturri ugariarekin kirol ezberdinak jarraitzeak ez du zertan lotura zuzenik izan behar hauek ikustearekin. Futboleko haxe bera gertatzen da neska baten iritziz:

“Gure futbola geroz eta ezagunagoa den arren, partiduak ikustera jende berdintsua gerturatzen da. Bai nabaria dela jendea interesatuagoa eta informatuagoa dagoela, edo behintzat telebistan hau ikustera jartzen direla.” (Neska_3)

Orokorrean kirol-taldeak maila ona ematen dutenean, sariak irabazten dituztenean, hau da, talde edo kirolari individual batek bere arloan arrakasta duenean, atentzioa eta ospea lortzen du; eta honek baliabideetan, diru sarreretan, gizartean duen garrantzian igoera bat

dakar. Hala ere, hau ez da beti honela gertatzen, zenbait kirolek gizartean daukaten garrantzia eta boterea ikaragarria delako. Nesketako batek oso argi dauka kirol gehienetan ospeak eragin handia duen arren, egoera hau ez dela guztietara zabaltzen.

“Nabaritzen da talde bat ondo doanean kasu gehiago egiten zaiola eta influentzia handiagoa sortzen duela. Gero, emaitza horiek ez direnean hain onak, bai ikusten detela alde batera uzten direla. Adibidez, futbolarekin ez det hain argi ikusten hori, gizartean garrantzi handiagoa lortzen ari denez famak geroz eta eragin gutxiago dauka.” (Neska_2)

5.2.3. Txapelketak:

Kirol eta txapelketa bera, sexu ezberdinen kasuan aztertu ezker, desberdintasunak argiak dira. Futbola bezalako kirolean, non mutilen txapelketek urte asko dauzkaten, duela urte gutxi sortzen hasi ziren nesken txapelketen egoera beste sexuarekin berdintzeko bide luzea daukate. Hau aipatzen du futbolarietako batek:

“Txapelketak jolasterakoan, adibidez FIFA edo UEFA-koak, profesionalagoa sentitzen zera, era berezi batean biziz. Baina egia da lan asko dagoela oraindik egiteko, zelaiak betetzea asko kostatzen da oraindik, ...” (Neska_2)

Futboleko nesken Espainiako selekzioan esaterako, azken urteetan (gazte kategoriez hitz egiten du) Eurokupan eta Mundialean lortu dituzten emaitzekin ezagutzera eman dira, telebista eta idatzizko prentsan aipua animoak jasoz. Hala ere, elkarrizketatu batek aipatzen duen moduan, hobekuntzak areagotzeko arrazoiak ematen jarraitu behar dute:

“Selekzio mailan, azken urte hauetan gauza asko lortu dira eta hori federazioarentzat oso garrantzitsua denez apustu handia egin dute gure taldean, eta hori nabari da. Baina lanean jarraitu behar da, maila mantenduz, arrazoiak ematen jarraituz, beraien interesa jaitsi ez dadin.” (Neska_2)

Saskibaloia kasuan, egoera xelebrea da. Nesken eta mutilen txapelketak organizazio ezberdinen esku daude, Saskibalo federazioaren (neskena) eta ACB-ren (mutilen) esku. Beraz, bi sexuen arteko berdinketa lortzeko bidea zailagoa izan daiteke, bi ligen koordinatzaile horien eta bertako langileen nahia eta gogoia behar delako. Eta zoritxarrez, kasu batzuetan hau ez da gertatzen:

“... saskibaloian, mutilen txapelketa ACB-k darama eta nesken liga Saskibaloiko Federazioak. Erreginaren kopako finala Donostian jokatu zenean, talde osoa palkora gonbidatuak izan ginen eta han Saskibaloiko Federazioko goi kargurik ez zegoela konturatu ginen. Oso arraroa iruditu zitzaigun, esan dudana bezala

federazioa delako nesken liga eta erreginaren kopa daramana... hurrengo hilabetetan erregearen kopa jokatu zen, eta finalaren bukaeran Saskibalo Federazioko presidentea elkarrizketatu zuten. Hau adibide argi bat da goi karguek nesken eta mutilen kirolei ematen dieten garrantziari buruz.” (Mutila_2).

5.2.4. Kontratu motak:

Kirol munduko zenbait kontratuetan, saskibaloian bezala, ilegalak diren zenbait klausula ezartzen zaizkie emakumezko kirolariei. Hauek legetik at dauden arren, kasu asko aurki daitezke egoera berean, eta horien kasua aipatzen du saskibaloilariak:

“Duela gutxi atera ziren telebistan zenbait kasu kontratu illegalenak. Saskibaloiko ekipo batzuk nesken kontratuetan haurdun ez geratzearen klausulak jartzen zituzten, eta hau gertatuko balitz kontratua hautsi eta kalera botatzeko aukera zutela ezartzen zuen.” (Mutila_2)

5.2.5. Soldatak:

Gizarteko lan eremu askotan neskek gutxiago irabazten dute, eta kirol munduko arlo gehienetan egoera hau areagotu egiten da. Futbola bezalako kirolean esaterako, non mutilen irabazkiak izugarriak diren, horiek neskekin alderatu ezker desberdintasuna are handiagoa da. Futbolarietako batek dioen moduan:

“Goi mailetan ezin dira mutilen eta nesken soldatak konparatu. Baina egia da selekzioaren azpi kategorietan bai mutil eta baita neskek ere berdintsu kobratzen dugula.” (Neska_2)

5.2.6. Diru laguntzak:

Kirol txikiak ez dituzte arlo publikotik diru sarrera edo diru laguntza ugari izaten. Horiek kirol handienetara joaten dira eta Gimnasia Erritmikoa bezalako kirol ezezagunetako klubek geratzen diren soberak banatzen dituzte beraien artean. Hau aipatzen du erritmikoan ibilitako kirolariak:

“txapelketetara kanpora joaten ginenean subentzio txikiak jasotzen genituen, ordaintzen genuena hainbeste izan ez zedin.” (Neska_4)

Egoera ez zen gehiegi aldatzen klubetatik atera eta selekzioaren deialdietara joatean. Kasu honetan ere, aurretik aipatu bezala, diru laguntza gehienak futbola bezalako kirolek doaz, federazioak erabakitzen duen moduan:

“Federazio aldetik, euskal selekzioarekin joaten baginan bidaia eta lo egiteko lekua bakarrik ordaintzen zizuten, beste ezer ere ez.” (Neska_4)

Goi mailan ibiltzeko potentziala erakusten bazenu egoera zertxobait aldatzen zen. Promesa moduan egoten bazina, zenbait txapelketetara joan ahal izateko, diru laguntza edo beka txikiak ematen zituzten. Beti ere ematen duzun eta eman dezakezun errendimenduari begira:

“Baina Foru Aldundiak ematen zuela diru laguntza bat, ni Bielorrusiara uda batean promesa moduan joan nintzenean beka txiki bat eman zidatela. Baina honelako gauza txikiak, gauza puntualak zeuden, beti garaipena lortzeko edo errendimenduari begira.” (Neska_4)

5.2.7. Klubak:

Klub bakoitzak bere politika eta irizpideak dauzka, batzuk sexu ezberdineko kirolarien egoera berdintzearen alde eginez eta beste batzuk zuzenean edo ez zuzenean kontra eginez. Hori bakoitzaren esku uzten diren baliabideen, soldaten, ... araberakoa izango da.

5.2.8.1. Baliabideak:

Futbolaren kasuan, zehazki Erreal eta Athletic-ari dagokionez, nahiko zaintzen dute nesken taldea, hauen alde gauza gehiago egin ditzaketen arren, entrenamendu zelaiak, fisioterapeutak, medikuak, instalazioak, ... berdinak izanez. Hau elkarrizketatutako futbolari batek aipatzen du:

“ez dakit beste klubetan nola funtzionatuko duten, baina errealearen kasuan denek baliabide berdinak dauzkagu: mediku, fisio, instalazioen, ... inguruan tratu berdina jasotzen dugu.” (Neska_2)

Errealean egondako eta Athletic-en dagoen neska batek, aurreko berdina aipatu arren, beste talde askotan hau ez dela gertatzen dio:

“Athletic eta Errealean instalazioak oso ondo daude, zelaiak belar naturalekoak eta aldagela handiak eta txukunak dira. Baina beste klub askotan, batzuk dirurik ez dutelako eta besteek, Bartzelonak bezala, bere arrazoiak dituztelako ez dituzte instalazio eta baliabide egokiak: aldagelak banku batzuk izanda, belar artifiziala, ...” (Neska_3)

Hala ere, Euskal Herriko kirolari femenino askok beraien artean mintzatzen dutenean, eta aurretik aipatu bezala kirol bakoitzeko kasuen diferentziak kontuan edukiz, egoera antzekoak bizi izaten dituztela uste dute.

“Euskal Herrian geroz eta baliabide gehiago daudela, naiz eta kirol ezberdinetako jendearekin hitz egitean konturatzen zera egoera parekatuak bizi izan ditugula, neurri batean edo bestean.” (Neska_3)

Klubek egoera honen larritasuna ikus dezaten eta hobekuntzak bilatzeko helburuarekin akzioan has daitezten, zenbait erakunde sortzen edo mugitzen hasi dira, nesketako batek futboleko kasuan aipatzen duen moduan:

“Orain La Liga erakundea sartu da, eta Federazioarekin borrokan dabil nesken egoeran eta baliabideak hobetzeko.” (Neska_3)

Jardun behar dugun bidea oso luzea da oraindik. Meritu ugari egiten dituzten eta balorazio eta baliabide saririk ez duten kirolarien kasu asko auki ditzakegu, hirugarren elkarrizketatuak dion moduan:

“orokorrean emakumeen kirolak geroz eta indar gehiago hartzen ari den arren, beti egon da atzerago kirol gehienetan. Adibidez, gogoratzen naiz Errealean nengoenean, Hockey-eko neskak ligako txapeldunak izanda eta Champions-a jolasten zeudela, guk baino baliabide gutxiago zeuzkaten.” (Neska_1)

5.2.8.2. Bidaiak:

Bidaiatzerako orduan ere, klub bakoitzak bere jokatzeko moduak dauzka, elkarrizketatuek dioten arabera, Athletic eta Errealaren artean desberdintasunak handiak dira. Bi kasuetan hoteletan lo egiten duten arren, bidaiatzeko moduak oso ezberdinak dira. Errealaren kasuan:

“bidai gehienak autobusez egiten ditugu, luzeenak izan ezik, abioiez goazela. Beraz hortan desberdintasuna nabaria da, mutilek autobusez bidaitzen dutenean notizi bezala hartzen da, eta guretzat astebururoko kontua da.” (Neska_2)

“Errealak HM hotel katearekin kontratu bat du, eta hau neska eta mutilentzako da.” (Mutila_1)

Athletic-en berriz, bidaiak mutilek bezala egiten dituzte:


“Athletic-en zorte asko daukagu, bidai gehienak abioian egiten ditugulako” (Neska_3)

5.3. ZERGATIK GAUDE EGOERA HONETAN?

Argi dago, desoreka honetara heltzeko elementu ezberdinen batura egon dela. Ezin da arrazoi edo errudun bakarra bilatu, gizarte osoa eta bere historian zehar jarraitu den bidean loturiko osagai ezberdin askoren nahastea baita. Gure elkarrizketatuei galdetzerako orduan 2.grafikoan dagoen aukeraketa egin zuten:

Azkenik, gaur egun deskribatu diguten egoeratik atera, edo hau hobetzeko jarraitu beharko genukeen bidea zertxobait finkatzeko, elkarrizketatuen ustez honako puntuak izan daitezke garrantzitsuenak. Beraz, %33-aren ustez, ez dago konponbide zehatzik, egoeraren desoreka aztertuta oso zaila ikusten dutelako hau berdintzeko aukera. %17ak berriz, marketing eta publizitatean bi sexuen egoerak nibelatu ezkeroko egoera honen hobekuntza izugarria izan daitekeela uste dute, denborarekin berdintzera ailegatuz. Beste %17ak, diru laguntzetan eta enpresa ezberdinen, gobernuen, ... inbertsioan ikusten dute egoera berdinketarako gakoa.

2.Grafikoa: gaur egungo egoera berdintzeko edo aldatzeko gakoa?



Azkenik, %33a genuke, egoeraren konponbidearen puntu garrantzitsuenak zeintzuk diren argi ez daukatenak eta honetarako hausnarketa handi eta luzeagoa behar dutenez, beste erantzunetako bat aukeratu nahi ez dutenak.

5.3.1 Prentsa eta dirua:

Ospeak enpresen inbertsio eta dirua ekartzen ditu, baita prentsa idatzi eta ikusiaren atentzioa ere. Honela, ezezagunak diren kirolak publikoaren aurrean ezagun arazteko beharrezkoa da prentsaren aldetik laguntzak edukitzea. Baina, kirol egunkari asko irabazietarako sortuak izan dira, ahalik eta gehien saltzea bilatuz. Eta honek eragin zuzena dauka nesken kirolean:

“mundu honetan diruak agintzen du, dena diruaren inguruan eta diruaren arabera mugitzen da eta gaur egun nesken futbolak ez du diru asko ematen... arrazoi ezberdinak daude (dirua sortzeaz eta jendea erakartzeaz ari da) hau honela izan dadin, agian gizarteak aukerarik eman ez dietela. Baina argi dago gaur egungo egoeran, enpresek interesak bakarrik begiratzen dituztela eta mutilen futbolak aukera hau ematen die.” (Mutila_1)

5.3.2. Prentsaren eragina eta ardura:

Aurretik aipaturikoa egia da, famak dirua eta diruak prentsa ekartzen du. Baina beti ez da honela gertatzen. Egoera batzuetan, kirol ezezagunak aldizkari, egunkari, telebista kate, ... ezberdinetan ateratzen hasten dira, pausuz pausu ospea irabaziz. Eta ospe honen bidez gizartean leku garrantzitsua lor dezake, indarra irabaziz, eta enpresa ezberdinen atentzio eta inbertsioa lortuz. Honekin kirol horien parte hartzaileen igoera etor daiteke, ezaguna egitean jendea hau probatzen edo moda jarraitzen hasten delako.

Beraz, nesketako batek aipatzen duen moduan, kirol femeninoa aurrera eramateko eta honen egoera hobetzeko, ezinbestekoa da kontuan edukitzea prentsaren ardura eta gizartean eragiteko duen boterea:

“emakumeok dugun egoera hobetzeko, nire ustez, prentsan dago gakoa. Egunkari eta telebistaren bidez mutilek jasotzen duten atentzio berdina jasoko bagenu seguru nago egoera asko hobetuko zela. Jarraitzaile gehiago edukiko genituzke, inbertsio gehiago eta honela soldata altuagoak, ... Prentsak izugarritzko ardura dauka sexuaren (kirol munduaz ari da) arabera dauden desoreka askotan.”
(Neska_2)

5.3.3. Kiroleko matxismoa:

Ezin da ahaztu orain arte bizi izan den gizarte matxistaren seme eta ondorioak garela. Kirolaren kasuan gehiengo mutilek praktika ditzaten pentsatuak daude, ariketak, jokoak, materialak, ... mutilentzako eginak izanda. Beraz, neskak futbola bezalako kirolak praktikatzan hastean mutilentzat prestatutako ariketekin hasi ziren. Honi gizonek, eta emakume askok ere, barneratuta zeukaten eta daukagun matxismoa gehituko bagenio egoera zaila geratzen zain neskei. Hau bosgarren elkarrizketatuak aipatzen du:

“neskek ez ditugu aukera berdinak, gure futbola ez da hain fisikoa, mutilena baino teknikoagoa da, eta honek ez du esan nahi aspergarriagoa edo okerragoa denik, desberdinak dira... gauza da, kirolean gizartean bezala matxismo pila bat dagoela eta askok oraindik uste dute neskek ez lituzketela honelako kirolak egin behar, ez daudela honetarako prestatuak...”) (Neska_3)

5.3.4. Berdinketa ezinezkoa:

Elkarrizketetan zehar berdinketa lortzeko bide oso luzea geratzen dela aipatu izan duten arren, inor ez zen gai ondorioztatzeko non egon daitekeen gakoa. Gehiengoaren iritziz urte eta lan asko falta dira berdintasunaren helmuga ikusten hasteko, baina denon laguntzaz eta esfortzuaz lor daiteke:

“neskak mutilen egoera berdinean egoteko bide luzea falta da. Gizartea aldatzen joan behar gera, pentsaera matxistak ahaztuz eta denok batera aukeren berdinketa bilatuz.” (Neska_2)

Azken elkarrizketatuak berriz, ez du berdinketarako bidea argi ikusten. Gizarteak daramatzen estereotipo, rol, ... ezberdinek indar handiegia daukate, eta nesken egoera hobetu daitekeen arren, mutilena ere hobetzen joango da, berdinketa ezinezkotzat utziz:

“nire ustez berdinketa ezinezkoa da, egoera hobetu dezakegu bai, baina kirol guztietan aukera eta egoera berdinak bizitzea ezinezkoa da, gizarteak zaku handiegia darama atzean” (Neska_4).

6. ONDORIOAK

Elkarrizketak egin, hauek aztertu, nire hitzekin lagundu eta azaldu ondoren oso argi geratzen zaizkit hainbat kontzeptu. Baina hauek aipatzen hasi aurretik, oso garrantzitsua iruditzen zait gogoraraztea lan honekin lorturiko informazioak ez duela kiroleko egoera orokorra deskribatzen, ezta kirolean sexuaren arabera dauden arazo guztiak.

Gizartean sexuak garrantzi izugarria dauka, gizakiaren historia luzean zehar gizon eta emakumeentzako rol batzuk sortzen joan dira eta. Rol edo estereotipo hauek gizonaren eta emakumearen irudi bat sortu zuten, sexuaren arabera bi zakutan banatuz. Arestian Pérez-Quintanak (2014) dion moduan, pertsonen jaiotzatik sexuaren araberako balorazio sozial bat egiten da. Honela, kasu gehienetan, jaiotzatik ate batzuk zabaldu eta beste batzuk itxi egiten dira, norbera dagokion sexuaren irudia jarraitzera bultzatuz.

Hau bat dator Neska_4-ren bizipenekin. Bere garaian oso markatuta zeukaten zeintzuk ziren mutilentzako kirolak (futbola, saskibaloia, ... bezala) eta zeintzuk neskenak (dantza, gimnasia erritmikoa, ...).

Torreadella-Flix-ek (2016) aipaturikoa baieztatuz, estereotipo hauek kirol munduan eragin kaltegarri ugari sortzen joan dira, gizonen mundua bihurtuz. Honela, kirol gehienak mutilen arteko txapelketen inguruan sortzen hasi ziren, horiei bideraturiko ariketak sortuz, txapelketa gehienak oso fisikoak izanez, ...

Honela, elkarrizketatuetako batek azaltzen duen moduan, futboleko antzerako egoerak gertatzen dira, mutilen futbola fisikoagoa izanez eta neskena teknikoagoa. Hala ere, gizartean barneratuta dauden estereotipo matxistek “neska ez daude honetarako prastatuak” edo “ez litukete honelako kirolak egin behar” bezalako pentsamenduak sortzea eta azalaraztea eragiten du (neska_3).

Feminismoak indarra irabazten joan ahala, kirol mundura zabaldu zen. Baina ideia honek traba ugari aurkitu ditu bere bidean, gizarteak barneratuta dauzkan estereotipo matxisten ondorioz. Txikitatik ezartzen digute zein kirol diren aproposenak, gure sexuari “ez dagokion” kirola aukeratu ezker egoera arraro bezala hartuz. Hau, Pérez-Quintanak (2014) dionarekin (jaiotzatik eta sozializazioaren bitartean pertsonak genero estereotipoekin duten atxikimendua elikatzen da) bat dator.

Argi dago kirolen lehen urteak oso garrantzitsuak direla haurren etorkizunean, kirolariak eta pertsona aktiboak izan daitezen. Horretarako lehen urteetan eskolak duen erantzukizuna izugarria da. Eskola kirolaren bidez egoeraren hobekuntza txiki bat ekarri dugu, baina lan izugarria dago oraindik. Eskoletatik estereotipo guztiak atera eta denak eskubide eta aukera askatasun berdinak eduki behar dituzte. Elkarrizketatu batek dion moduan, gaur egun estereotipoak garatzen jarraitzen ditugun arren, geroz eta ohikoagoa da haurrek txikitatik kirol ezberdinak probatzea. Honela, pixkanaka neskak futbola eta saskibaloia bezalako kirolean sartzen dira eta mutilak dantza edota antzerkian (Neska_4).

Eskolak ez dira erantzukizuna duten bakarrak, klubak, federazioen, diputazioen, ... aldetik ere ez da arazo hau behar bezainbeste lantzen. 8. Taulan ikus daitekeen moduan, elkarrizketatu guztiak ados daude gobernu eta federazioen aldetik nesken eta mutilen kirola orekatzeko lan hobea egin behar dela, egoera desorekatuan bizi baikara. Leruite, Martosek eta Zabalak (2015) diotenez Espainian dauden 66 Federazioetan kirol lizentzia dutenen artean 712.027 (%20,9) neskak eta 2.682.608 (%79) mutilak dira. Hau nesken egoera federatuaren erreflexu argia da, eta federazio horiek kirolean diru sarrerak igo eta gizartera zabaltzen badituzte, aldizkari eta telebisten errekurtsioak erabiliz, aurrera pausu handia emango genuke. Honela nesken kiroleko soldadak, baliabideak, ospea, ... hobetuko genituzke.

Leruitek, Martosek, eta Zabalak (2015) dioten moduan, prentsak izugarritzko eragina dauka, mutilen kirolaren alde izugarritzko lana egiten du, eta ondorioz emakumeen kirola baztertuta geratzen da. Badirudi, Tusell-en grafikoan azaltzen den moduan (2009), beraien funtzio eta ardura sozialari huts egiten diote. Prentsak gizartea informatu beharko luke, ahalik eta inpartzialen izanez. Honela, kirol ezberdinen informazioa zabaldu beharko lukete, salmentei hainbeste indar eman gabe, eta gizartea hobetzearen papera jokatuz. Baina aurretik aipatu izan dugun bezala, mundu honetan diruak agintzen du. Neska_2-ren ustez prentsan dago emakumeen egoera hobetzeko gakoa. Mutilek prentsa idatzi, ikusi eta entzunaren aldetik jasotzen duten atentzio berdina edukitzeak eragin ditzakeen onurak aldarrikatzen ditu: jarraitzaile gehiago edukitzea, inbertsioen eta soldaten igoera, ...

7. HOBEKUNTZA PROPOSAMENAK

Argi dago eginiko lanak hutsuneak eta hobekuntza aukerak dauzkala. Hasieratik edukitako ideiatik bukaeran lorturiko produktura bide luze eta aldakorra egin da. Hasiera batean eremu gehiegi ukitzeko gogo eta nahia neukan. Baina denbora pasa ahala, errealitatera bueltatu eta pentsatuta neuzkan ideietako asko baztertu egin behar izan ziren. Lan honen sorrerarako dagoen denbora kontuan edukiz, ia ezinezkoa da eremu zabala erabiltzen duen gai bat aukeratzea. Denbora dela eta egin daitekeena mugatuta dago.

Aukeratutako erremintari dagokionez, zaila egin zitzaidan elkarrizketatuekin hitz egin eta geratzea. Batzuk denbora dezente libre zuten arren, beste batzuekin zailtasun handiagoek eduki nituen, denbora are eta gehiago mugatuz.

Elkarrizketa zabalegia iruditzen zait, eta zegoen denborarekin egin zitekeen lana kontuan edukiz, hau mugatu beharko nuke. Hurrengo baterako, gaiak zehatzagoa izan beharko luke, adibidez eskola garaiko edo goi mailetako kirol esperientzia aztertuz. Gai espezifikoagoak behatuz, horietan gehiago sakon dezakegu, ondorio hobeak ateraz eta lanak eraginkortasun eta sakontasun handiagoa edukiz.

Azkenik, aipatu nahiko nuke lanaren momentu askotan ez naizela oso gustura sentitu, egin nahi nuena zabalegia zenez, erabakiak hartzerako orduan zalantza ugari sortzen zitzaizkidan. Arazo hauen aurrean erabilitako konponbideek lanaren nondik norakoa ezarri zidaten, baina argi daukat hau berriz ere egingo banu eskola garaian gehiago finkatuko nintzela, gaia zehatzagoa eta eraginkorragoa eginez. Orain dagoen moduan (sei pertsonen kirol urte guztietako bizipenak kontuan edukiz) arlo ezberdin eta zabalak ukitzen baititu, eta beraz ezin dira gauza gehiegi jeneralizatu.

8. BIBLIOGRAFIA

Ballarín, P. (2007), La Educación de la mujer Española en el siglo XIX, *Historia de la Educación: Revista Interuniversitaria*, 8, 245-260.

Capistegui, F.J. (2004), La resbaladiza arista de un monte erguida sobre dos abismos: mujer y deporte en España (1900-19950), *Memoria y Civilización (MyC)*, 7, 129-174.

Felgueroso, F. Gutierrez-Domènech, M. eta Jiménez-Martin S. (2013), Dropout trends and educational reforms. The role of the LOGSE in Spain. Madrid, España: FEDEA

González, T. (2008), Las mujeres españolas en el sistema educativo. La construcción de programas y modelos formativos, *Clepsydra*, 7, 77-92.

Herrero, D.J. eta Pérez, R.M. (2007), Sexo, Género y Biología, *Feminismo/s*, 10, 163-185.

- Juaristi, M. (2016), *Gorputz adierazpena genero-rolekin apurtzeko. saiakera bat* (Gradu Amaierako Lana). Gasteiz: Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteiz. 2017ko Otsailaren 9an berreskuratuta <https://addi.ehu.es/bitstream/10810/18843/3/Maddi%20Juaristi%20-%20Gradu%20Amaierako%20Lana.pdf-tik>.
- Leruite, M., Martos, P. eta Zabala, M. (2015), Análisis del deporte español de competición desde la perspectiva de protagonistas clave, *Retos*, 28, 3-8.
- López, E. (2005), Propuesta para una educación no sexista. Educación e igualdad de sexos en el área de Educación Física. <http://www.efdeportes.com/> Revista Digital - Buenos Aires - Año 10 - N° 81 - Febrero de 2005. 2017-ko Urtarrilak 10ean berreskuratua <http://www.efdeportes.com/efd81/coed.htm-tik>.
- Martinez, J., Beltrán de Heredia, S., Arana, I. eta Longarte, J. (2015), La presencia de la mujer en la actividad física y el deporte, *Nuevos retos en la investigación en psicodidáctica*, UPV, 164-178.
- Pérez- Quintana, A. (2014), Sexo, Género e Intención de emprender, *Investigación sobre Mujeres y Género*, 797-821.
- Rabazas, T. eta Ramos, S. (2006), La construcción del género en el franquismo y los discursos educativos de la Sección Femenina, *Encounters on Education*, vol. 7, pp. 43-70.
- Scruton, S. (1992), Educación física de las niñas: un enfoque feminista, Open University Press, Buckingham.
- Subdirección General de Estadística y Estudios, Secretaría General Técnica Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, (2015), Estadística encuesta de hábitos deportivos en España 2015. Síntesis de resultados. publicacionesoficiales.boe.es.
- Subirats, M. (2014), Avances y retos en las políticas y en las prácticas de los géneros, *Educar especial 30 aniversario*, zenbakia falta da, 85-100.
- Torrebadella-Flix, X. (2016). Fútbol en femenino. Notas para la construcción de una historia social del deporte femenino en España, 1900-1936, *Investigaciones Feministas*, 7, (1), 313-334.
- Tusell, J.O. (2009). Deporte y discriminación por sexo: fútbol, remo y salto de esquí. Barcelona: Universidad Pompeu Fabra.
- Vizcarra, M. T., Macazaga, A.M., eta Rekalde, I. (2009), *Las necesidades y valores de las niñas ante la competición en el deporte escolar*, Bilbao, España: Servicio editorial de la Universidad del País Vasco.
- Zagalaz, M.L. (2001), La educación física femenina durante el franquismo. La sección femenina, *Educación Física y Deportes*, 65, 6-16.

ERANSKINA:

1) Zure kirolean, goi mailako nesken eta mutilen egoera nolakoa dela uste dezu? Sozialki berdin baloratuak daude?

- a) egoera berdina, testuinguru antzekoa, sozialki berdin baloratuak, ... gaude.
- b) desoreka handia dago, neskek gutxiago baloratuak daude, gizartean ez dute garrantzi handiegirik (mutilekin konparatuz), ...
- c) desoreka dagoen arren, mutilak zertxobait gainerik egonez, desoreka hau oso txikia da.
- d) ez nator bat aurreko aukerekin.

2) Zure kirolean, Estatuaren, Federazioaren, ... aldetik nesken eta mutilen txapelketetan baliabide berdinak ematen dizkizute? Epaileak, sariak, instalakuntzak, ...

- a) bai, egoera berdinean gaude.
- b) ez, mutilen egoera askoz ere hobea da, bere eskura baliabide gehiago edukiz.
- c) mutilen egoera piska bat hobea den harren, diferentzia ez da ain latza.
- d) ez nator bat aurreko aukerekin.

3) Zure kirolean, nesken eta mutilen soldatak antzekoak dira?

- a) orokorrean bai.
- b) mutilena piska bat altuagoa da.
- c) mutilek askoz ere gehiago irabazten dute.
- d) ez nator bat aurreko aukerekin.

4) Zure klubean, eskura daukazun baliabideak eta beste sexuarenak berdinak edo antzekoak direla uste duzu? Txapelketetara bidaiatzeko modua, lesionatzean eskura dauden baliabideak, ...

- a) orokorrean bai.
- b) ez, mutilek baliabide gehiago dauzkate eskura.
- c) ez, neskek baliabide gehiago dauzkate, gutxi izan arren.
- d) ez nator bat aurreko aukerekin.

5) Beste kirolei dagokionez, zure kirolean bizi duzun egoeraren antzekoa dela uste duzu? Zergaitik?

- a) bai, egoera antzekoa da.
- b) ez, nire kiroleko egoera berezia da.

Arrazoiketa:

6) Eskola garaian, kirolei dagokionez, neskek eta mutilek zenituzten aukerak berdinak ziren?

- a) bai, txikitatik denak animatzen gintuzten.
- b) inork oztoporik jartzen ez zigun arren, bai bultzatzen zirela zeozer mutilak futbola eta saskibaloia bezalako kirolak egitera.
- c) Zenbait kirol neskentzat eta beste batzuk mutilentzat izan behar zirela oso markatuta zegoen.
- d) ez nator bat aurreko aukerekin.

7) zure ustez zain izan daiteke gaur egungo egoera berdintzeko edo aldatzeko gakoa?

- a) marketing eta publizitatea.
- b) diru laguntzak eta inbertsioak berdintzea.
- c) ez dago konponbiderik, ia ezinezkoa da sexu ezberdinen arteko egoera berdintzea.
- d) ez dakit.